**86/2015 D (16. art.)**

**15 urte izatea**
**eta**
**17 urte baino gehiago EZ IZATEA sartzeko momentuan EZ uneko urte naturalean**

**+**

**DBHko 3. maila egina (1. ZIKLOA)**
**edo**
**DBHko 2. maila egina (Salbuespenez - kasu horietan, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari jakinarazi)**

**+**

**Irakasle-taldearen proposamena**

**(Orientazio Kontseilua)**

## OLH
## Oinarrizko Lanbide Heziketa.

**2019KO MAIATZAREN 16KO AGINDUAREN II. ERANSKINA: Eskaera eskaintza baino handiagoa denean bete beharreko irizpideak:**

*1.- EAEn eskolatuta dagoen ikaslea / edo DBHko azken ikasturtean erkidego horretan bertan eskolatuta egon dena*:

a DBHko 3. edo 4. mailara arte ikasketa arruntak egin dituen ikaslea edo curriculum aniztasunaren bidez ikasi duena eta inskripzioaren urte naturalean 17 urte dituena (*)
b. DBHko 3. edo 4. mailara arte ikasi duena eta inskripzioaren urte naturalean 16 urte dituena (*)
c. DBHko 3. mailara arte ikasi duena eta inskripzioaren urte naturalean 15 urte dituena (*)
d. DBHko 2. mailara arte ikasi duena eta inskripzioaren urte naturalean 16 urte dituena (*)
e. DBHko 2. mailara arte ikasi duena eta inskripzioaren urte naturalean 15 urte dituena (*)
f. (1.-) atalean zehaztutakoa betetzen ez duten ikasleak, (a-)tik (e-) letrara zehaztutako lehentasun berberarekin.

g.- ***17 urtetik gorakoa*** eta ***DBHko 3. edo 4. maila ikasi duena*** edo, salbuespenez, DBHko 2.maila ikasi duena eta irakasle-taldeak proposatu duena...(*)

h.- ***Gainerako eskatzaileak*** aurreko kolektiboetan jasota ez daudenak, ***baldin eta egiaztatzen*** badute ***17 urte edo gehiago dutela*** inskripzioaren urte naturalean. (*)

*(*) Lehentasuna* : batez besteko nota hoberena. g) letrako kolektiboaren kasuan, lehentasuna adinak zehaztuko du, txikienetik

***2019KO MAIATZAREN 16KO AGINDUAREN II. ERANSKINA (I. Eranskina, bigarrena, 1. puntua)***
127/2014 Errege Dekretuaren 18. artikuluarekin bat etorrita, esleipen-prozesuan, behin II. eranskineko (hirugarren jarraibidearen 3. puntuko) a) letratik e) letrara bitarteko taldeei plazak esleitu ondoren, esleitu gabeko plazak geratuz gero, aukera egongo da plaza horiek 17 urtetik gorakoei esleitzeko, baldin eta Lanbide Heziketako titulurik ez badaukate

edo bigarren hezkuntzako ikasketak osorik bukatu dituztela egiaztatzen duen titulurik ez badaukate.

**ESKAINITAKO PLAZAK** **=** Plaza libreen gehieneko kopurua - Errepikatzaileentzat gordetako plazen kopurua **(≤ 15)***

* Aukera dago ikasle kopurua handitzeko (gehienez 20), baina Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzaren baimena behar da

* % 10 erreserbatuta % 33 edo gehiagoko desgaitasuna egiaztatzeagatik sartzen direnentzat.

* % 5 erreserbatuta eliteko kirolariak direla egiaztatzen dutenentzat.

* % 85 erreserbatuta gainerako taldeentzat.

Desgaitasuna egiaztatzen dutenentzat edo eliteko kirolarientzat erreserbatutako plazak aukeratzen dituzten baina plazarik lortzen ez duten ikasleek aukera izango dute gainerako taldeentzat erreserbatutako plazak aukeratzeko.

Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

## FPB Formación Profesional Básica

Onartzeko Agindua 2019-2020

4